



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-10-01**

VIURTEA 1.522.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Ezker abertzaleko alkate eta hautetsiek itxialdiak egingo dituzte

TOLOSALDEA Eskualdeko udaletxeetan egingo dituzte, ostegun arratsaldean hasi eta larunbat eguerdira bitarte

DEIALDIA Herritarrak ere «parte hartzera» animatu ditu ezker abertzaleak, «eraso uholde honi harresia jartzeko» 6

**Bedaioko Zaldi
Raid lasterketa
«arrakastatsua»,
29 zaldunen
partaidetzarekin»**



Opariak jaso zituen Lasak. P.R.

**Eneko Lasa
arrantzalea
«oso gustura»
omenaldiarekin»**



ARGAZKIA ETA PINTURA UZTARTUZ

TOLOSA Aranburun ikusgai daude azaroaren 8ra arte Jose Luis Urdanpilleta margolari eta diseinugile grafikoaren lanak; «argazki-pintura kontzeptuari hurbiltzea da helburua» 4

digital
h
@
www.hitza.info

Udazkenaren begiak 2008

Basoan ikusitako onddoak, bildutakoak...
Atera argazkia eta bidali webgunea@hitza.info helbidera,
zure izena eta herria zehaztuz.

HITZAn argitaratzeaz gain, argazkiak bidaltzen dituzten
guztien artean **asteburu bateko egonaldia zozkatuko da**
nekazal etxe batean.

Argazkiak bidaltzeko epea: abenduaren 3a.



Udalak herriari «bizkarra eman» diola salatu du ezker abertzaleak Gudari Egunean

Zizurkil «Herritarrek Joxe Arregi eta Jose Luis Geresta 'Totto' ez dituztela ahaztuko» esan zuen ezker abertzaleak.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo ezker abertzaleak Joxe Arregi eta Jose Luis Geresta *Totto* gogoan izan zituzten iragan berri den Gudari Egunean. Egun horretan irakurritako idatzian Udalaren jarrera salatu zuen, «herriari bizkar eman eta herriko bi semeren, estatuak hil zituen bi gudariaren plaza izenak eta oroitarriak kentzea» erabaki zuelako.

Ezker abertzaleak gaineratu zuenez, «agian, pentsatuko zuten ahaztuko ginela; agian, pentsatuko zuten ez genituela gogoan izango. Baina ez, zizurkildarek ez ditugu ez Joxe eta ez *Totto* ahaztuko». Plazen izenak aldatzean eta oroitarriak kentzean «argi erakusten du» zenbaitek biktima kontzeptuaren inguruan egiten duen «erabilera gaizto eta interesatua», azaldu du. «Inor izatekotan, Joxe Arregi eta *Totto* biktimak dira, bi aldiz biktima, inoiz zizurkildarek ez zaielako egin».

Ezker abertzaleak bi zizurkildarren heriotzak gogoan izan zituen. Joxe Arregi 1981eko otsailaren 4an atxilotu zuten Madril. Bederatzi egun geroago hilotz zen. «Zortzi egunegabe torturatatu zuten eta 73 poliziek parte hartu zuten galdeketa. Era guztietako torturak egin zituzten. Otsailaren 12an ospitale militarrean egin zituen azken hitzak hauek: «Oso latza izan da. Handik ordu gutxira hil zen», gogoratu zuen idatzian. Joxe Arregi ET Ako kide zela dio-



Joxe Arregiren oroitarria zegoen lekuan lore eskaintza egin zuten. HITZA



Jose Luis Geresta *Ttotton* oroitarria zegoen inguruan ere elkartu ziren. HITZA

en inongo epairik ez dagoela zehaztu du. «Bai, ordea, torturaz hil zutela nabarmetzen duen epaia. Zoritxarrez, torturatzaile izateaz zigortu zituztenak egun polizia buru lanetan ari dira, edo orain gutxi ikusi bezala, hiltzen direnean ohore militar guztiak eskaintzen zaizkie. Ez al da Joxe Arregi oroimena merezi duen biktima bat? Herriak bizkar eman behar al dio?».

Jose Luis Geresta *Ttotton* inguruan ere ez dagoela epairik azaldu zuten ere. «Su eten betean, 1999ko martxoaren 20an hil zuten. Zer helbururekin? Gorpuak zituen ezaugarriak erreparatu, auzi medikuak argi azaldu zuten ez zegoela inongo aztarnarik berebur-

ruaz beste egin zuela esateko. Kasu artxibatatu egin zuten, ordea. Estatuak egindakoa estali nahi izan du. Ez al da *Totto* biktima bat?», galdetu zuen ezker abertzaleak.

Joxe Arregi eta Jose Luis Geresta oroitzen dituzten plaza izenak edo oroitarriak kentzea «herriko biktimei iseka egitea» izan dela salatu du. «Are gehiago, inongo legimitaterik ez duen Udal batek hartu duen erabakia izan dela kontuan hartuta. Gainera, erabakiaren ondoren Udaleko kideek egindako adierazpenek zaurian gatzat botatzeko soilik balio izan dute». Demokrazia hitza «ahoa izatea» leporatzen diote Udalari, «baina gero herriaren gehiengo izan gabe eta herriaren borondatearen kontra erabakiak hartzen dituzte. Zertarako eta beren burua salbatzeko». Auzitegi Nazionala baino «urrunago» joan direla esan du eta EAJren eta EAJren «lotsagarria» izan dela azaldu du. «Lotsaririk ez duenak ezin ezer sentitu», gaineratu dute.

Zizurkilgo Ezker Abertzaleak eta «zizurkildarrok Joxe eta *Totto* ez ditugu inoiz ahaztu», azaldu du. «Joxe eta *Ttotton* oroitarriak ez daude baina ikurrinak eta loreek herri baten duintasuna islatzen dute, guztion lanarekin, egunen batean aske ikusiko dugun herri baten duintasuna».

Presentzia nabarmena Txolarrek Kilometroetan

Komunikabideak «Zirkuituko megafonia egingo du, elkarrizketekin, guneak bisitatu eta «beste ezustekoekin».

ERREDAKZIOA

Txolarre Irratiak presentzia nabarmena izango du Iruran ingandehonon egingo den Kilometroetan. Goizeko bederatzietatik iluntzeko zazpiak arte, delako lagunek lantaldea ariko da Irurara hurbiltzen direnei informazio praktikoa eskainiz. Baina horretaz gain, elkarrizketak egingo dituzte zuzenean, zirkuituko bost guneak bisitatu dituzte eta «bestelako ezuste ugari ere izango da. Iruratik kanpo, beste irratien bidez entzuten digutenek ere gozatzeko moduko jar-

duna egiten saiatuko gara», azaldu dute eskuladeko euskarzko irratitik.

«Zortzi urtetan makina bat proiektu interesgarri izan dira. Makina bat erronka gainditu ditugu. Eta Kilometroak 2008 ere horixe da Txolarre Irratiarentzat, erronka interesgarri bat», azaldu dute. «Gustura egin dugu lan komunikazio batzordean eta ohore handiz egingo dugu megafonia Kilometroen egunean».

Megafonia egiteaz gain, internet bidez ere eskainiko duten seinalearekin Arrosa sareko beste euskal irratietan izango da Irurako Kilometroen berri. Eta noski, Tolosaldean Txolarre Irrati bidez izango da Kilometroen eguna jarraitzeko aukera, horretarako FMren 107.5ean eta 101.2an sintonizatuz gero.

Euskaraz trebatzeko deia Anoetan eta Iruran

ERREDAKZIOA

Anoetako eta Irurako udalek herritarrei euskaraz trebatzeko deialdia egin die, hau da, euskaldunak direnek euskaraz idatzi eta irakurtzeko ohitura har dezaten, eta oraindik euskaraz ez dakitenek ikas dezaten. Trebakuntza hori herrian bertan egiteko aukera eman nahi diete herritarrei. Horrela, herrian taldea osatuz gero, eskolak bertan emango dira.

Anoeta eta Irura herri euskaldunak diren horretan, ia osorik, euskaraz egiten dute eguneroko bizia. «Gureak bezalako herrietan euskaraz bizitzea garrantzi handikoa da, euskara berreskuratzeko, Euskal Herria euskalduna izateko», azaldu dute bi udalek ohar batean.

Bi udalek euskararen erabilera sustatzeko konpromisoak hartuak dituztela azaldu dute, Udallerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide egin zirenean eta erabilera planak abian jarri zituztenean. Aldi berean, Euskara Bizi-

berritzeko Plana onartzean, «sendotu egin genuen planari bultzada emateko ardura».

Bizitzako eremu guztietan euskaraz egiteko, «oraindik pauso batzuk ematea geratzen zaigu». Helburu euskalduntze eta alfabetatzean, esate baterako, nahiz eta gehienak euskaraz bizi, batzuetan zailtasunak izaten dira euskaraz idatzi eta irakurtzeko. Eta oraindik ere badira euskaraz ez dakiten herritarrek, bertakoak nahiz etorkinak. Horregatik bultzatzen dute euskaraz trebatzera bi udalek.

Izena emateko epea etzi amaitzen da eta Irurako udalarekin edo Anoetako udalarekin egin daiteke. Herrian euskara ikasteko aukera ongi ez datorikionarentzat, maila eta ordutegi aukera zabala dagoela gogorarazten dute, bai Tolosaldeko Aitzol Udalen Euskaltegian bai Tolosaldeko AEK Euskaltegian. Orduetegi arazoak izanez gero, autoikasuntzaren aukera aholkatzen dute.

Laburrak

Illegalizazioak salatzen ezohiko bilkura, gaur

ADUNA «Adunako Udalak ezohiko bilkura egingo du gaur, 20:00etan, udalarekin. Azken asteotan gertatutako ilegalizazioak salatzen *Salbuspen-egoerari stop! Demokrazia Euskal Herria!* mozioa bozkatu da. Osoko bilkura irekia izango da, eta edonor joan daiteke bertara.

Aurrera-Saiaren partidak Ibarren eta Alegian, gaur

PILOTA «Gaur, 19:00etan, Ibarren frontoan Aurrera-Saiaren hiru partidak jokatu dituzte Gipuzkoako Kluben Txapelketaren baitan, kadete, senior eta jubenil mailan. Alegian ere partida bat izango dute, 20:00etatik aurrera, jubenil mailan.

Tolosako Udala
IRAGARKIA

2008ko Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagozkie erreziboak borondatezko ordainaldian daudela, jakinarazten dugu. Hauxe da epea: 2008ko urriaren 1etik 2008ko azaroaren 10ra, bier berne, 2008ko irailaren 10ean baino lehen banku edo Kutxan helbideratutako agiriak, zergadunak esandako kontuan sartuz kobratuko dira zuzenean. Helbideratzeke daudenak zergadunaren etxera bidalko dira posta bidez berran berran, berak emandako helbide fiskalera. Etxean jasotako erreziboak ordaintzeko jo Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano, BBVA, La Caixa eta Nafarroako Rural Kutxara. Erreziboak erakustearain nahikoa da. Hauxe dekarbitzet gogora, ordaintzera joaterakoan, hermetik aurrerako erreziboak banku edo aurrezki kutxa horietan helbideratzekeo aukera duzuela. Urriak 20rako erreziboak ez badu jaso bere helbidean agiria, Tolosaldeko Udako Zerga Bilketa bulegoan eska dezake, Goian esandako epe hori emaitu ondoren, premia bidean ekingo diogu, eta ordaintze ez diren errezibo horiek errekarago izango dute, atzerapenagatik sortutako interesak eta kostoak ere zergadunari kobratuko zaizkie.

Tolosan, 2008ko irailak 25an
ALKATEAK



Larrañeta Berri baserriko lursailetan izan ziren proba eta prestaketak. Guztira 29 zaldi aritu ziren Zaldi Raid lasterketan HITZA

29 zaldi eta zaldunek hartu dute parte Bedaioko I. Zaldi Raid lasterketan

Bedaio » Artubi elkarteak antolatutako heziketa lasterketarekin «pozik» daude bedaiotarrak, helburu guztiak betez.

ERREDAKZIOA

Igandean burutu zen Bedaioko I. zaldi Raid lasterketa. Eguraldi ederra lagun, 29 zaldik hartu zuten parte. Artubi elkarteak antolatutako proban bi albatari arduratu ziren 29 zaldiak beharreko osasunean egon zitezen eta proba burutzeko gai zirela begiratzen.

Bedaioko Larrañeta Berri baserriak dituen lursailetan antolatutako zaldi festa hau, 4x4 ibilgailuak eta erremolkeak, *Vet gate* kontrol-gunea, eta sarrera eta irteera kon-



Zaldien kontroletatik parte-hartzaile guztiak pasatu behar ziren. HITZA



trola izan ziren bertan, 09:00etatik hasita.

Bedaiotik hasita inguruko parajeetan zehar bi faseak burutu zituz-

ten zaldiek zaldunekin batera. Eguraldia lagun, «zirkuitu oso politatzat» jo zuten parte-hartzaileek, baina «gogorra une batzuetan»,

hau da, «zorrotza eta lana eskatzen zuena». Guztira 28 kilometro inguru egin behar zituzten.

Arauen barruan, erdiak

Heziketa proba izanik, gehienezko 11 kilometro orduko abiadura markatu zen muga bezala. Proba denek bukatu bazuten ere, «ofizialki erdia baino gehiago lehiaketatik kanpo geratuko zen bukaeran, ez baitzizutzen arauak osatutako parametroak bete», hots, kontroletik kanpo geratuko ziren gehienak.

Hala adierazi nahi izan zen probaren bukaeran epai mahaletik, eta zaldunek «gustura entzun zituzten aholkuak». Batzuentzat proba hau berria bazen ere, beste batzuek entrenamendutzat hartu zuten, agi denez, hauetan ohituta.

Helburuak, «guztiz beteta»

Bestalde, ez zen zaldi arazorik izan eta aipatu beharra dago ere, 10 urteko neskatila batek parte hartu zuela: baita zuzen bukatu ere. Perrotzaileek lana izan zuen eta proba erdian perragalduriko zaldi bati asistentzia egin zitaiaon.

Artubi Kultur elkarteak kideak ere «gustura» geratu dira: «Helburuak guztiz beteak izan dira proba honekin. Zaldia munduko beste alderdi bat ezagutarazi dugu eta giro polita sortu, gauza desberdin berri eta etorkizuneko» eta noski, Bedaioko inguruak ezagutaraztea, bideak, basoak eta herri kaskoa.

Artubi, emaitzarekin «pozik»

Artubi Kultur Elkarteak beste behin ere antolakuntzan parte hartu duen jende guztiari eskerrak luzatu nahi diete, eta «berezi ki Bedaioko elkarte honek antolatzen dituen proiektu eta ekintza desberdinetan konfidantzaz material eta balabideak eskaintzen dituzten enpresa guztiak».

Guztietatik berezi nahi dituzte Albaitack, Eki herrajak, Diva bertsuak, Fidelity House, Egimendi eta Euskadiko Kutxa, eta noski «parte harturiko zaldi eta asistentziako guztiak».

Igandeko Zaldi Raid lasterketako argazkiak www.bedaio.com webgunean sartuko dituzte ondorengo egunetan, eta parte hartu duten guztiak euren balantzeak eta hobetzeko puntuak azaltzeko aukera emango dute, hurrengo edizioetan ahalik eta zuzenen antolatzeko. Beraz, berriz ere proba hau egiteko asmoa badute.

Eneko Lasa: «Omenaldian dena egon zen ondo»

N. URBIZU

Asteburuan Alegian Eneko Lasa arrantzale gaztea omendu zuten, lortutako guztiarengatik. Alegiako Dantza Taldeak *Agurra* eskaini zion, eta ondoren Udalaren izenean, Maider Jauregik zintzarri bat eman zion (Ana Jesus Ansorena tolosarrak eginikoa). Aitor Sarasola alkateak bere ibilbidea ere gogoratu zuen. Munduko arrantzale txapeladunordeari «omenaldiko dena» gustatu zitzaion.

Aralar institutuko Guraso El-



Iturraldek Aralar institutuko Guraso Elkartearen partez detailea eman zion. P.R.

karteak Lasari ere detaile bat eman nahi izan zion: Maria Angeles Iturraldek jantzi sorta bat eman zion. Aitziber Irazustabarenak, Intxurre futbol taldearen izenean Ansorenak egindako Intxurreren armarrira eskaini zion. Ondoren, zahagi ardoa egin zuten 50 bat lagunek herriko plazan.

Munduko Txapelketari begira

Datorren udan Munduko Txapelketan ariko da eta dagoeneko prestatzen hasi da. «Orain arte Orian

aritu naiz baina datorren astean Leitzaranean ibiliko naiz, Orian obratan daudelako. Astean behin, lauzpa bost orduz entrenatuko dut. Ez da asko: udan zehar 8 orduz entrenatu izan dut. Ohituta nago».

Ekainera arte ez du lehiaketarik izango arrantzale alegiarrik. Orduan, ekainetik aurrera, hain zuzen, Gipuzkoakoan eta Euskadiakoan lehiatuko da. «Abuztua aldera Mundukoan ariko naiz, eta ondoren Espainiakoan, hemendik urte batera, gutxi, gorabehera».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Argazkia pinturara hurbilduz

Kultura » Jose Luis Urdanpilleta artista donostiarraren artelanak ikusgai daude azaroaren 8a bitartean, Aranburu Jauregian.

ERREDAKZIOA

Argazkia eta pintura uztartu ditu Jose Luis Urdanpilleta margolari eta diseinugile grafikoak bere azken erakusketan. *Fotografia 5* izenpean osatutako bilduma ikusgai da azaroaren 8a bitartean, Aranburu jauregian.

Artistak, argazki erakusketa-guztietan asmo bera jarraitzen du, argazki-pintura kontzeptuari hurbiltzea. Argazkiak margotzen ariko balitz bezala ateratzea lortu nahi du artistak. Argazki digitalean, pinturan ez bezala, berehalako teknikak aplikatzeko aukera dago.

Oraingo argazkiak diptikoak edo triptikoak dira, erretratu panamarrak izan ezik. Zenbaitetan asmo panoramikoa nagusitzen da, bestetan bitxikeria izan zitekeena hobeto ulertzeko begirada zabaldu nahi izan du.


Aurreko argazki katalogoan denborari astia ostu beharraz jardun zen, hartara, zeregin gehiago eta orotarikoak gauzatu ahalko zituelakoan, eta ideiak helarazi. Horretarako, egilearen ustetan, «izugarri baliagarria da argazki digitala, bizkortasuna dela eta, baina

kontzeptua edo ideia pinturan erabiltzeko bera da ia».

Eguneroko bizitzako ohiko egoerabatetik hasi eta abstrakzioa arteko irudiak aurki daitezke erakusketan. Hala, Anoetako geltokiko uneetatik abiatu eta abstrakzio kontzeptu arrigarrietara gerturatzen da.

Ibilbide luzeko artista

Pinturan eta argazkigintzan lan ugari egindakoa da eta erakusketa esanguratsuetan hartu du parte. Aipatzekoa da Europako Batasunak Panaman aldi baterako lana egiteko kontratatu zuela, *Europako Batasunaren laguntza Panamari* proiektuko irudiaren diseinu grafikoaz arduratzeko. Aranburun ikusgai diren artelanetan aurki daitezke Panaman ateratako argazkietako batzuk. Esaterako, bertako lagunak, paisaiak, fruta arbolak, tabernak... Urdanpilletak marrazkiarekiko interesa, arterako zaletasuna, Arte eta Lambide Eskolara joz eta, garai hartan, San Telmo Museorearen geletan zegoen Gipuzkoako Elkarte Artistikoaren eskolez bideratu zuen.



Argazkilaritzarekin eta margoekin jolastan du Jose Luis Urdanpilletak, bere erakusketan. JOSE LUIS URDANPILLETAK



«Akoso polizialaren» aurka

TOLOSA ■ Atzo goizaldean elkarretaratzea egin zuten 100 lagun inguruk epaitegiaren aurrean «Goierriko bi gazte deklaratzera deitu izana salatzeko». Hauetako bati AHTren inguruko pankarta bat jartzten ari zela

agintaritzari men ez egitea leporatu zioten; bigarren-goari, berriz, gertatzen ari zena ikustean argazkiak ateratzen ari zela zertainek kamara kendu eta identifikatzeari uko egitea leporatu zioten. R. CALVO



Kutxarekin ere hitzarmena

IRURA ■ Heldu den igandean izango den Kilometroak 2008ko jaialdiairekin bat egin du Gipuzkoako Kutxak, eta babesle den aldetik, antolatzaileek behar duten diru laguntza eman die; horretarako hitzarmena izen-

petu zuten kutxako Gizarte Ekintza eta Komunikazio sailako zuzendariak, Carlos Ruizek, eta Irurako ikastolako lehendakariak, Sorkunde Irazuk (irudian ageri den bezala). HITZA

Laburrak

Hodeiertzen zilarrezko ezteietako kontzertua

TOLOSA ■ 2008 urte berezia izaten ari da Hodeiertz abesbatzarentzat, bere 25. urteurrena ospatzen ari baita. Urtean zehar egiten ari diren ekitaldien artean, larunbatean, zilarrezko ezteietako kontzertua eskainiko dute Tolosako San Frantzisko elizan 20:15ean. Halaber, 40. Abesbatza Lehiaketako kartel iragarlea aurkeztuko dute, Borja Goikoetxea Diseinu Eskolako ikasleak egina.

Bilboko manifestaziora joateko autobusa

AMEZKETA ■ Urriaren 4ean, larunbata, «Salbuespen egoera salatzen» Bilbon egingo duten manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Amezketatik. Jakitera eman dutenez bertan joan nahi dutenentzat autobuseko txartelak ohiko tabernetan daude salgai. 15:15ean Alegiatik pasako da eta deialdia Ikaztegieta, Altzo, Alegia, Amezketa eta Orendaingo herritarrei zabaldu dute.

Orfeoiaren 'El caserio' ikuskizunerako txartelak

TOLOSA ■ Tolosako Orfeoiaren hargarren urteurrenko ospakizun zuzen baita, Tolosan eskaini zuten lehen obra plazaratuko dute berriro heldu den urriaren 18an, larunbatarekin. Hain zuzen, Jesus Guridiren *El Caserio* izango da ikuskizuna eta eszenatoki bezala Leidor aretoa aukeratu dute. Interesatuek sarrerak Kutxaren webgunean eta zinemako leihatilan bertan eskura ditzakete.



hitza info

udazken-neguko materiala

SALGAI
Irurako plazan



harpidedunentzat prezio bereziak:
ekarri zure harpidetza txartela!

Heldu, gazte nahiz txikientzat zirik, jertseak, elastikoak eta hainbat osagarri.





Itxialdien berri emateko Ibarren egin zuten prentsaurrekoa Tolosaldeko ezker abertzaleko hautetsi eta alkateek. R.CALVO

Ezker abertzaleak itxialdiak egingo ditu udaletxeetan

Ibarra » Tolosaldeko udaletxeetan egingo dituzte ostegun arratsaldetik hasi eta larunbat eguerdira bitarte.

REBEKA CALVO

Tolosaldeko ezker abertzaleko hautetsi eta alkateek Euskal Herriak bizi duen «salbuespen egoera» dela eta «eraso uholde honi harrisia jartzera: STOP esatera», deitu ditu herritarrak Ibarren emandako prentsaurrekoaren bitartez. Tolosaldeko udaletxeetan datorren ostegun arratsaldetik hasi eta larunbat eguerdira arte iraungo duten itxialdiak egingo dituzte horretarako. Ezker abertzaleak herritarrak itxialdian parte hartzea gonbidatu zituen eta baita datorren larunbatean amnistia- ren mugimendua deituta Bilboko manifestaziora joateko ere. Era berean, «aurrerantzean sortu- ko diren beste hainbat mobilizazioetan» parte hartzea ere deitu zituzten herritarrak.

Horiek horrela, EAE-ANV eta EHAK alderdien ilegalizazioak salatzeko egingo dituzte aipatu itxialdiak. «Aspaldian Espainiak bere aparatu judiziala erabiliz, alderdi politiko hauek ilegalizatzeko erabakia hartu zuen. Egunotan, erabaki politiko hutsa den horri jantzi juridikoa eman dio», argitu zuten zentzu honetan. Aipatu ilegalizazioez gain ezker abertzaleko

hautetsi eta alkateek «amnistia- ren aldeko mugimenduko 21 kideren aurkako espetxe zigorrak eta Askatasunaren legez kanporatzea eta, oro har, azken asteetan eman diren tortura kasu laggarriak, atxiloteta eta espetxeratze arbitrarioak, bahiketak, manifestazio debekuak, udaletxez udaletxe eta erakundeetan ematen den apartheid-a eta abar luze bat», ere gogoratu zituzten.

«Salbuespen egoera»

«Hitz guztixitan: salbuespen egoera larria bizi du Euskal Herriak, gure herrian ez dago demokrazia- rik», esan zuten.

Horren harira, «Espainian frankismoak bizi-bizirik jarraitzen» duela esan zuten, izan ere hautetsi eta alkateen iritziz «ez zen benetako trantsizioirik izan. Espainian, erregimen frankistaren oinordekoek, epaitegiek, epaileek, komunikabideek, politikoez agintzen dute oraindik ere, eta PSOEek ez du inolako eskurpularik eta lotsarik frankistekin lerrokatzeko, frankismoaren kontra borrokatu zutenak espetxera bidaltzeko, gure herrian hizki larri idatzitako salbuespen egoera ezartzeko, Espainiako kartzelak independentistentzat kon- tzertrazio eremu bilakazeko... Hori guztia helburu jakin batekin: ezker independentismoaren, eta oro har, Euskal Herriaren askatasun nahiarekin behin betikoko amaitzeko».

Era berean, EAJ, EA, Aralar eta

EB alderdiak PSOEren «lagun- tzaile paregabeak» direla esan zuten: «Hitzez alderdi abertzale euskaldunak direla dioten arren, egu- neroko bere jardunbidean alderdi erregionalistak dira, Espainiako frankisten morroi ari dira lanean. Alderdi erregionalista haien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango luke PSOEek, ezker abertzalearen hainbat erakunde legez kanpo utzi».

Euskal Herrian, hala ere, «aldaketa politikorako aukera zabalik» dagoela esan zuten, nahiz eta PSOE alderdiak «salbuespen egoera basatienez ezarrit, autodetermi- nazio eta lurraldetasun eskubi- deetan oinarritutako aldaketa poli- tikoak galarazi eta gaur egungo esparru konstituzional- autonomi- koa kostatzen ahalak iraurarazi nahi du, duela 30 urte egin bezalaxe, indarrez iraurarazi ere. Horre- tarako aldaketa horren motorra den ezker abertzalea txikituz eta Euskal Herriaren eskubideen aldeko jarduerak orozazarriz».

«Ardura politikoa»

Horiek horrela, «herriak aukera- tuak izan garen ezker abertzaleko alkate eta hautesio erantzukizu- nez eta ardura politikoz» jokatu- ko dutela argitu zuten herenegun egi- niko prentsaurrekoan, «hori baita gatazkaren sustraietara jotzeko bide bakarra, hori baita herri honen gehiengoak eskatzen duena: benetako konponbidea, konpon- bide iraunkorra».

Emakume etorkinen inguruko jardunaldiak antolatu dituzte

Ibarra » 'Bidea irekitzen duten emakumeak' antolatu dute hilaren 6tik 9ra SOS Arrazakeriaekoek.

ERREDAKZIOA

«Bene-benetako gizarte aldatzai- leak» eta «paisaia berri bat zabal- tzen duten bidaiariak» direlako antolatu ditu Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Tolosaldeko talde- ak emakume etorkinen inguruko Bidea irekitzen duten emakumeak izeneko jardunaldiak Ibarren.

«Han, kultura askoren jatorria, hain justu, mugitzen ari den oraina da: kale, begirada eta urrats bakoit- zean, urrunaren eta hurbilaren arteko etengabe mugimen- duan, ikusezina ikusgai bihurtzen den hartan, abiatzea izan zena bide bilakatzen ari den hartan...», argitu dute SOS Arrazakeriako kideek antolatutako jardunaldien xedea argitzeko.

Izan ere, emakume etorkinen in- guruko hausnarketa egin nahi dute, horretarako gai desberdinak jorratuko dituzten hizlariak gon- bidatu dituztelarik. Era berean, bertaraten diren guztien artean ere eztabaida sortu nahi dute eta, bide batez, aurreiritzi asko apurtu nahi dituzte.

Datorren astean izango dira an- tolatutako ekintza desberdinak, astelehenean hasi eta osteguna bi- tartea, eta guztiak Kultur Etxean izango dira 19:15etik aurrera.

Dokumentala lehenik

Astelehenean, hilak 6, Helena Ta- berna zinemagileak zuzendutako *Extranjerias* izeneko dokumentala eskainiko dute eta aurkezpena SOS Arrazakeriaren Ikerketa eta Dokumentazio Guneko, MUGA- Keko, Silvana Lucianik egingo du. Aipatu behar da Helena Taberna, besteak beste, *Yoyes* eta *Altsasua* 1936 lanen zuzendaria ere badela eta sari ugari jaso dituela zine jaial- di desberdinetan.

Hilak 7an Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Mikel Mazkiara- nek *Emakume etorkinak eta emakumearen aurkako indarkeria. Dis- kriminazio bikoitza* hitzaldia izan- go da.

Hilak 8an, aldiz, *Familia-bere- lkatzea, gaur eta bihar* hitzaldia antolatu dute eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriako Agustin Unzu- rrunzagak eskainiko du.

Osteguneko azken hitzorduan, hilaren 9koan, Silvia Carrizo izan- go da protagonista eta *Euskadiko emakume etorkinaren lan eskubi- deak* izeneko solasaldia eskainiko du. Carrizo Malen Etxeko kidea da, emakume etorkinen alde lan egin den elkarteok, hain zuen ere.

Laburrak

Gaur irekiko dute berriz ere Leaburuko Udal Liburutegia

LEABURU » Leaburuko Udal Liburu- tegia gaur irekiko dute ohiko ordu- tegiarekin: astelehenean eta aste- arteetan 17:00etatik 19:00etara. Udalak jakinarazi duenez, KZgu- neko zerbitzua ere ordutegi horre- tan erabili ahal izango da eta baita astelehenetik ostiralera 08:00eta- tik 14:30era ere. KZgunea azken ordutegi honetan erabili nahi duen- ak, hala ere, Udal bulegoetan es- katu beharko du giltza tutoreak adierazten duen egunetan.

'Pentsa dezagun oinekin', hilaren 7an eta 8an

LEABURU-GAZTELU » Uli Mankomu- nitateak *Pentsa dezagun oinekin* izeneko hitzaldia eskainiko du Lea- burun eta Gaztelun Kutxako ikas- gelak sustatzen duen osasunari buruzko jardunaldien barruan. Le- aburuko hitzaldia hilaren 7an izan- go da liburutegian eta Gazteluko hurrengo egunean, hilak 8, Eskola Zaharrean. Biak 17:00etan izano dira. Besteak beste, oinareen hezu- egitura, patologia ohikoak eta pertsona diabetikoaren oina izango dute hizpide.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leiztaran autob.: 948 221015

Taxi: 943 670420

Taxi (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Abel Barriolak maila bikaina erakutsi du azken hiru hilabeteetan. MARISOL RAMIREZ

Barriolak beste inork baino txapela gehiago lortu ditu

Leitza » Abel Barriolak udako jaialdietan laugarren txapela lortu zuen joan den igandean Titinekin bikotea osatuz.

ASIER IMAZ

Udako pilotaria izan da Abel Barriola. Azken jaialdian, Logroño (Errioxa) binakako San Mateoan, Titinekin bikotea osatuz txapela irabazteaz gain, komunikabideek pilotaririk onenaren saria eman diote leitzarriari.

San Mateoetan 4-6

Titin-Barriola eta Berasaluz VII-Begino bikotean arteko finalerdia ikusgarria izan zen. Logroñoan Adarraga pilotalekuan San Mateo-

etako partidarik birbilena jokatu zuten lau pilotariek. Azkenean 22-15 nagusitu ziren Aspeko bi pilotariak, finalerako txartela lortuz.

Final handia joan den igandean jokatu zuten Titin-Barriola eta Olaizola II-Ruiz bikoteek. Ikusmina handia zen, zaila baita une honetan bikote indartsuagorik aurkitzea. Partida 4-5 zihola, Aimar Olaizolak eskuin besoan min hartu zuen eta seigarren tantoa lortu bazuten ere, partida hortxe amaitu zen. Ondorioz, Barriolak uda honetako laugarren txapela lortu zuen.

Ondoren, jaialdia bertan behera geldituz, Titinek eta Barriolak hiruko baten aurka jokatu zuten. Cabrerizok, Mendizabalek eta Patxi Ruizek 18-11 irabazi zuten San Mateoetako txapeldunei.

Barriolaren laugarren txapela

2008ko buruz buruko agalduta ostean, zalantzak sortu ziren Abel Barriolaren inguruan. Hori isladatzen zuten behintzat komunikabideetako adituek. «Finaleran zer gertatzen zaio mutil honi?» galderari erantzuten saiatu ziren asko.

Denbora gutxian erantzun du Barriolak, udako jaialdietan lau txapela lortuz: San Ferminetan bi lortu zituen, lau terdikoa eta Xalarekin binakakoa; Lekeition Gonzalezekin jantzi zuen txapela eta San Mateoetan Titinekin.

Horretaz gain, azken hiru hilabeteetan jokatu dituen partida guztiak kontutan hartuz, batak beste leitzarriari 1,4 sake bakarrik sartu dizkiote. Berak bi hutsegite egin ditu partidako eta partida hauetan 25 tanto lortu ditu.

Aurrera KEk etxetik kanpo galdu du (3-2)

Leitza » Subizaren aurka jokatu zuten leitzarrek iragan asteburuan eta penalti bat huts egin zuten lehen zatian.

behar izan zuten Aurrera KEren futbol jokalaririk.

Bi penalti leitzarren alde

Lehenengo zatian Subiza «jaun eta jabe» izan zen, nahiz eta markagailuan aurreratzeko lehen aukera garbia Aurrera KEk izan zuen penalti bidez. Hau huts egin zuten eta Subizak 3 gol lortu zituen atsendaldia baino lehen.

Bigarren zatian leitzarrek hobeto jokatu zuten eta bi gol lortu zituzten, bigarrena penalti bidez lortu zuten.

A. IMAZ

Aurrera KE futbol taldeak 2-3 galdu zuen Subizaren aurka etxetik kanpo. Hiru puntuak «edozein taldek lor zitezakeen», baina etxekok atearan aurrean eraginkorragoak izan zirenez, esku hutsik itzuli



Lehen ikurrina Gipuzkoan jarri dute

IBARRA » Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju Mendi taldeak irteera antolatuta zuten iragan igandean, *Euskal Herria zehar, geurea ikurrina!* lelopean. 22 mendizale elkartu ziren Zarautzik Debarako bidea egiteko asmoz. Ekimen honetako lehen ikurrina Zumaia eta Deba artean jarri zuten. Bigarren mendi irteera Nafarroara, Urbasara, egingo dute urriaren 12an. A.I.

Alustiza hirugarren Oñatin

Areso » Euskal Herriko artzain txakurren txapelketan laugarren geratu ostean Oñatin hirugarren geratu zen.



Antonio Alustiza aresoarra Txiki txakurrekin. NAJARA GARZIA

A. IMAZ


Artzain Txakurren Nazioarteko Txapelketa Oñatin jokatu zen joan den igandean. Bertan izan ziren Nafarroako txapeldunak, hau da, Aresoko Antonio Alustiza eta Txiki bere txakurra. Euskal Herrikoan laugarren geratu ostean, Oñatin hirugarren postua lortu zuten.

Nazioarteko lehiaketara joan aurretik «zaila» ikusten zuen Antonio Alustizak txapela lortzea eta horrela izan zen.

Bizkor denetan bizkorrena

Oñatiko txapelketan Euskal Herriko artzain txakurrez gain, Frantziatik eta Herrialde Katalanetatik

joandako partaideak elkartu ziren. Hauen artean Bizkor eta Joxe Mari Jauregi arabarra nagusitu ziren, 5. aldiz txapela irabaziz.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



17°
12°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	16°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordeak: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkarteak (Euskal Herria plazan du egoitza) Iratxera irteera antolatuko du urriaren 30ean. Bazkaria Iratxe hotelen, dantzaldia eta opari zozketa izango da. Izen-ematea, elkartearen 34 eurotan (36 ez bazkideek).

■ **Alegia.** Heldu den urriaren 19an egingo den II. Barazki eta Animalien Azokarako izen-ematea Kultur Etxean egin daiteke. Beharrezkoa da, egunean bertan zer material beharko den zehaztu ahal izateko.

Musika

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoien 10. urteurreneko ospakizunen baitan, Tolosan eskaini zuen lehen obra plazaratuko dute berriro urriaren 18an Leidor aretoan: Jesus Guridiren *El Caserio*. Sarreak salgai dauzuten Kutxaren webgunean eta zinemako leihatilan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Jose Luis Urdapilletaren argazki erakusketak, azaroaren 8ra arte ikusgai izango da Aranburu jauregian.

■ **Tolosa.** Sukru Karakus artista turkiarraren pintura erakusketak Aranburu Jauregian.

Ikastaroak

■ **Zizurkil.** Itsasmendikoi Fraisorok lorezain, lorezaintzako teknikari eta lorezaintzako heziketa zikloetako ikasleentzat, lorezaintzako oinarriko prestakuntza duten pertsonen zuzendutako ikastaroa antolatuko du, atzo hasie eta abenduaren 19ra arte, 15:00etatik 20:00etara.

■ **Tolosa.** Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antzina-ko musikari buruzko interpretazio tailer-ikastaro bat antolatuko du urriaren 18 eta 19an Eduardo Mokoroa udal musika eskolan, Leonardo Garcia Alarcon zuzendaria- ren eskutik. Izen-ematea eta informazioa, 943 536973 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Tolosaldea-Leizaldea >>

HITZAren eskutik, Mari Mototsen panpina eta Pirritx eta Porrotxen DVD berria eskuratu daiteke

ERREDAKZIOA

Iaz egundoko arrakasta izan zuten Pirritx eta Porrotx pailazoaren panpinak: trapuzkoak, klasikoak, goxoak, lotara eramateko modukoak, jolaserakoak, politak eta Pirritx eta Porrotxen egundoko antza zutenak ziren! Etxeko txikieneztako opari ederra, egia esan.

Aurten, berri, bi pailazoek hainbestemaite duten Mari Mototsen panpina ere eskuratu ahal izango da. Parkean kantari ezagutu genuen neska, ume bihurrien laguna, iaz minbiziaren ondorioz mototsik gabe geratu zena, orain etxera eramanez 20 euroren truke, txikieneztako gaitz salgai jarri baino lehen, HITZAren harpidetunek lehentasuna izango dute oraingoan ere, eta gaurtik aurrera eskatu ahal izango dute Mari Mototsen panpina. Panpina eskatzen dutenek, gainera, Pirritx eta Porrotxen pina jasoko dute opari.

Iaz bezala, ohiko lekuetan salgai jarri baino lehen, HITZAren harpidetunek lehentasuna izango dute oraingoan ere, eta gaurtik aurrera eskatu ahal izango dute Mari Mototsen panpina. Panpina eskatzen dutenek, gainera, Pirritx eta Porrotxen pina jasoko dute opari.

'Eskerrik asko'

ikuskitzuna, DVDan
Panpinak ez ezik, *Eskerrik asko!* ikuskizunaren DVDa ere eskuratu daiteke dagoeneko HITZArenkin.

Ume bihurrien laguna



Gaurtik aurrera, HITZAren irakurleek Mari Mototsen panpina berria eskatu ahal izango dute. HITZA

Azken urtean Euskal Herriko hainbat herri eta bazterretan eman duten ikuskizun horretan, Pirritx eta Porrotxek aurreko ikuskizunean ezagututako Mari Motots maitagarria gaixo ageri da, erietxean, mototsik gabe. Gaixotasunari, ordea, aurre egingo die Pirritx eta Porrotxen babesarekin eta alaitasunarekin, eta Txan magoaren eta beste zenbait lagunena- rekin batera.

Zehazki, Txan magoarekin, suhiltzaileekin eta beste zenbait lagunekin batera grabatutako abestien bideo klipak eta aparteko beste zenbait kontu ere biltzen ditu DVD berriak.

» PANPINAK ETA DVD BERRIA, HITZA-REKIN

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZArenkin eskuratu daitezke gaurtik aurrera Mari Mototsen panpina berria, Pirritx eta Porrotx pailazoaren panpinak eta *Eskerrik asko!* ikuskizunaren DVDa.

■ **Noiz.** Gaurtik aurrera.

■ **Nola.** Bi modu daude panpinak edota DVDa eskatzeko, telefonoz eta posta elektronikoz: Batetik, HITZAren bezero arretarako 902-820201 telefonora deituta. Bestetik, *harpidetza@hitza.info* helbidera idatziz, HITZAren harpidedun kodea adieraziz.

Panpinak

■ **Mari Motots.** Panpina berria da. Prezioa, 20 euro. Pirritx eta Porrotx pailazoaren pina opari.
■ **Pirritx.** Prezioa: 20 euro. Pirritx eta Porrotxen pina opari.
■ **Porrotx.** Prezioa: 20 euro. Pirritx eta Porrotxen pina opari.

DVDa

■ **'Eskerrik asko!'** *Eskerrik asko!* ikuskizunaren DVDa. Bertan jasota dago ikuskizuna bera, abestiak, bideo klipak, erreportajeak...
■ **Prezioa.** 18 euro. Pirritx eta Porrotxen posterra opari.

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak